

Irun ez da Iran



**BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA**
IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

Nahiz eta, entzun dudanez, hala deitzen dioten gertuko herri batekoek. Mugako biztanleok izaera jakin bat omen dugu; nabaritzen omen zaigu inguru horretakoak garela, esaterako, irundarroi. Ba omen dugu zera berezi bat. Ez dut gehiegi sinesten kontu horietan, ondoren zera hori ez baita inoiz zehazten, hitzetara ekartzen. Topiko kaxkar bat, gehienez ere.

Orokortzea beti da arriskutsua, baina, gaia beste esparru batera eramanda, orokorrean maite ditut lau hanka txakurrak; hanka biko jabe asko ez hainbeste, eta horietako asko gero eta gutxiago. Kontua da gurean beste modalitate bat erne dela aspaldi ez dela: espezie-disforia moduko batek jota, polizia ez diren baina segur aski izan nahiko luketen gixon talde batzuk hasi dira Irungo kaleak patruilatzen, Polizia ofizialak bere lana egiten ez duelakoan, Irungo klima jasangaitzari (sic) aurre egiteko.

Ordu eta eremu gatazkatsuetan ibiltzen dira gora eta behera Irungo *gilet jaune* berriak, haien *sols el poble salva al poble* partikularra predikatuz eta praktikatur. Ez dugu hemen *pantonea* atera

Hendaian ere hasi dira patruilatzen jendarme frustratu batzuk, baina, are larriagoa dena, administrazio publikoak bultzatuta eta Poliziarekin elkarlanean

beharrrik antzemateko zer azal-kolore jotzen duten susmagarritzat, nahiz eta haiek, jakina, ukatu.

Paper zaila jokatu behar du ezkerreko udal-oposizioak: oposizio orori beza-la, tokatzen zaio esatea hiria hankaz gora dagoela, dena negargarri kudeatzen ari dela udal-gobernua, noraezean dabil-tzala, eta haiek hobeto egingo luketela. Kasu honetan, oposizio ezkertiarak eskuak pixka bat lotuta ditu: ezin du Irungo egoera gehiegi kritikatu, arrazistei arrazoia ematen bukatzeko arriskua hor dagoelako. Izan ere, batzuentzat erabate-

ko infernu bihurtu da Irun, eta etorkinei botako diete errua zuzenean edo zeharka, eta ai, garai bateko Irun baketsu eta harmoniatsua; besteentzat, aldiz, balizko segurtasun- eta bizikidetzaz arazo horiek arrazakeriaren isla baino ez dira.

Udan bi iritzi kategoriko eta kontrajarri jaso ditut: gipuzkoar batek esan zidan zeinen desberdinak garen Irungo eta Hendaia biztanleak, kulturalki eta soziologikoki ezin garela elkarrengandik urrunago egon, Hego-Ipar kontutik harago doan zerbait dela. Kontra egin nion, noski, baina ez pentsa argudioak sobe-ra nituenik. Hendaian bizi den irundar batek, berriz, esan zidan berak Irun eta Hendaia ez dituela bereizten, bere buruan dena bat dela. Ez nion kontra egin, badaezpada ere, baina zalantza handiak sortu zizkidan.

Erdibide bat bilatze aldera, orain badugu beste puntu komun bat, ñabardurak ñabardura: Hendaian ere hasi dira patruilatzen jendarme frustratu batzuk, baina, are larriagoa dena, administrazio publikoak bultzatuta eta Poliziarekin elkarlanean. Hau da, Irungo Udalak ekidinez babesten duena, Hendaia Herriko Etxeak ekinez babesten duela. ●

ZIGOITIA

ABUZTUAK 2
Larunbata

ZARAUTZ

ABUZTUAK 22
Ostirala

ZUMAIA

ABUZTUAK 29
Ostirala

DONOSTIA

IRAILAK 6
Larunbata

ERREENTERIA

IRAILAK 13
Larunbata

ALGORTA

IRAILAK 13
Larunbata

ZERAIN

IRAILAK 21
Igandea

AZPEITIA

IRAILAK 26
Ostirala

MUNGIA

IRAILAK 27
Larunbata

GASTEIZ

URRIAK 4
Larunbata

DURANGO

URRIAK 4
Larunbata

EIBAR

URRIAK 11
Larunbata



UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK

Antolatzaileak:



Euskoeko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikaren Kontsekoa
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euzkadi

Babeslea / Financiado por:

Eusko, auzolana

